

BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

240

AGINDUA, 2024ko azaroaren 21ekoa, Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Segurtasun Sailaren ordezkari eta ordezkari sindikalen kopurua Ertzaintzaren Kontseiluan.

Ertzaintzaren Kontseiluak 2011ko irailaren 30ean hartutako Akordioaren bidez, Ertzaintzaren Kontseiluaren barne-araudia onartu zen. Akordio horren 3.1 artikuluan ezartzen denez, sailburuak eman eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den aginduaren bidez azalduko dira jendaurrean saileko ordezkarien eta haien ordezkoen izendapenak, daukaten karguaren bidez identifikatuta.

Era berean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da Ertzaintzaren Kontseiluan ordezkari eta ordezkari sindikalen bakoitzari dagokion ordezkari-kopurua.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea Segurtasun Sailak Ertzaintzaren Kontseiluan izango dituen bost ordezkarien izendapena, bai eta haien ordezkoen ere:

Presidentea: Segurtasuneko sailburua

Ordezkoa: Segurtasuneko sailburuordea

Titularra: Segurtasuneko sailburuordea

Ordezkoa: Segurtasuna Koordinatzeko zuzendaria

Titularra: Babes Zibileko sailburuordea

Ordezkoa: Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendaria

Titularra: Ertzaintzaren zuzendaria

Ordezkoa: Ertzaintzako burua

Titularra: Giza Baliabideen zuzendaria

Ordezkoa: Baliabide Orokorren zuzendaria

Bigarrena.– Argitara ematea Ertzaintzaren Kontseiluan ordezkari eta ordezkari sindikalen bakoitzari dagokion ordezkari-kopurua:

ErNE: Bi titular eta bi ordezko.

ESAN: Bi titular eta bi ordezko.

EUSPEL: Titular bat eta ordezko bat.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko azaroaren 21a.

Segurtasuneko sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.